

NEKAZARI DOATSUA



Senpereko bestetan oorezko aipamena

Nere pipa chit bete, ta suaz pizturik,
Keia goruntz, chistua lurrera botarik;
Banetorren echeruntz bertsoak kantatzen.
Buruan berez berez ziranak sortutzen;

Zeiñtzuek diran letraz gaur jarritakoak,
Izan arren balio oso gichikoak,
Ala ere nai nuke emenchen lenbizi,
Orain irakurtzera jendeari asi.

Fumatzen duela ere Erregek badakit nik,
Eizean aspertutzean asnas artzen jarririk;
Ordea, artu ez arren onen belar merkerik,
Aposte egingo nuke ez diola gustorik,
Abanoari ark artzen, nik pipari lakorik.

Gallera ez dala bizi lasai nerau bezala,
Basotik ez daramala nere poz au echera,
Koroia da chit pisua, izan arren ederra
Itzalgarrri ariñ bat da, berriz nire kapela,
¿Añ, ardura gichirekin, non bizi ni onela?

Badakit Errege dela ondasunez chit aundi,
 Baita askoz dituala geiago eskalari,
 Nola eziñ dion eman premiadundanari,
 Atzetik gero dabiltzaz gerra giñan berari,
 Baña ¿al da nere kontra bear bada bat ari?

Merkataria sarritan dijoa fumatuaz,
 Feriatik echeruntza burua urratuaz;
 Atsegiñik artu gabe pipako ke gozuaz;
 Gogoratu oi dalako bakarrikan diruaz,
 ¿Noiz dijoa ni bezeia bertsoak moldatuaz?

Tratu ona egiñ arren ark ezin du kantatu,
 Geiago irabaztea zuelako pentsatu;
 Aberastutzen ari da, baña, ezin da poztu,
 Zulo bat du biotzean ezin dana zerratu,
 ¿Ta urteko laboreaz ni enaiz bai, kontentu?

Nere umeai begira atsegiñez nago ni,
 Ematen didatelako denak poza neroni,
 Enuen nai izaterik semerik merkatari,
 Baizik arrantzale, artzai, ta geyen nekazari,
 Zergatik ori diodan beti eska Jaunari.

Nekazaria lurrean dalako zimendua,
 Artzaia da bigarrenko, edo ondorengua,
 Arrantzale irugarren, dudarik gabekua,
 Oñean egongo bada zutik, lerden mundua,
 Bestela elitzateke gizarte galdua?

Bizibide oyek dira nere ustez onenak,
 Iruretan nik dakuskit kristaurik garbienak,
 Iruretan leyalen ta Euskaldunik zallenak,
 Gordetzen dituztelako oitura on zarrenak,
 Antziñako guraso on gureak zituztenak.

Orrela bada maiz neri alaitzen zait bairua,
 Oroitzean guregatik bizi dala bekua,

Oroitzean guregatik bizi dala goikua,
Nola Markes, zeñ Errege, bergiñ Aita Santua,
Kantaturik gure lana dala bedeinkatua.

Irurogeita bost urte euki arren gañean,
Oraindikan zama ona deramat bizkarrean,
Berrogeitak daramazkit igaroak lanean,
Idi, gurdi, laya, golda, orobat aitzurrean,
Ala ere miñez enaiz iñoiz etzan oyeañ.

Egia da zartu naiz ta, azkena zait urbiltzen,
Bañan, anau asko orrek beñik beñi ni beldurtzen,
Ator Eriotza ator, Zerura joan naiten,
An ez dalako negarrik iñoiz ere entzuten,
Eta kantua bakarrik zatalako gustatzen.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Imposición de una cruz

Con gran solemnidad se ha celebrado en el palacio provincial el acto de la entrega á nuestro querido amigo D. Ignacio Arana, oficial de la Diputación provincial, de las insignias de la cruz de Beneficencia con que ha sido agraciado por el salvamento del niño Pedro Ancino en el río Urumea, realizado por dicho señor con exposición de su vida.

La ceremonia se verificó en el salón de sesiones de la Diputación, con asistencia del presidente Sr. Machimbarrena, del vicepresidente de la Comisión provincial D. Tomás Balbás, de los diputados Sres. Garay, Itarte y Pradera y de todos los empleados.

El presidente pronunció con este motivo un breve pero elocuente discurso, enalteciendo el acto heroico que motiva la merecida recompensa y el agraciado recibió emocionado las felicitaciones de todos los asistentes, á las que unimos la nuestra muy expresiva.
